

ZEA MAYS

Bilboko Errekalde auzoan sortu zen Zea Mays taldea 1997an.

Hasierako laukoteak segitzen du gaur egun taldean: Asier Basabe (bateria), Ruben González (baxua), Iñaki Imaz, Piti, (gitarra) eta Aiora Renteria (ahotsa).

Taldea diskoetxez diskoetxe ibili da hameka urte hauetan: Gor, Gaztelupeko Hotsak, Oihuka eta Bonberenea Ekintza. Orain arte bortz disko atera dituzte guztira.

Diskoak: Zea Mays, Elektrizitatea, Harrobian, Sortzu grabitatearen aurka, Morphina, Era, Da, Harro...

Urte hauetan guztietan Euskal Herritik kanpoko hainbat lekutan jo du Zea Maysek: Amsterdam, Berlin, Madrid, Kanada, Japonia, Bartzelona, Liberpool, Londres... Baita, Festimad, Euskal Herria Zuzenean eta BBK Live jaialdietan ere, bertzeak bertze.

Kantu ospetsuak Gaur ni naiz, Ilara hilobi, Kea, Hiri eri, Atera...

Kantua:Negua joan da ta:

[ZEA MAYS - Negua joan da ta - YouTube](#)

Elurrak joan direnean nire mendien artean

Eguzkia teloian atzekaldean da

Ateratzeko beldur da, beldur eszenikoa

Aspaldi antzeztu ez duen obra honetan

Izpi txiki txikiren bat agertuz doa gaurkoan

Poztasun handi batek besarkatzen nau

Mesedez ozen esan negua joan egin dela

Nire arima hotzak ez du sinizten eta

Laztandu nazazu orain, ur urdinen artean

Orain lainorik ez da, aurpegi biluziak

Ta larrua jotzean garrasirik ozenena,

Gordin amaigabea, negua joan da ta.

Jaio berrien antzera taupaden beharra dut orain

Belarriekin ikusteko nire begiek entzuten ez dutena

Mesedez ozen esan negua joan egin dela

Izara guztiak erre ditut eta

Soinu bakar bakarra zure bularraldean

Negua joan da ta

Borobildu zaizkit ertzak zure ondoan

Izpi lasaigarri bat

Negua joan da ta, negua joan da ta

Egileak:Kiara Gutiérrez eta Mikel Etxabarri